

## 2009KO KUDEAKETA TXOSTENA

### IRUÑERRIKO IBAI PARKEA

2009an 22 kilometroko eremua hartzen zuen parkeak, Ultzama, Arga eta Elortz ibaietan barna, luzetarako banaketa honekin bat, udalerrien arabera:

Burlata	2.008 m
Uharte	4.891 m
Barañain	2.312 m
Eguesibar	165 m
Esteribar	3.262 m
Ezkabarte ibarra	6.186 m
Atarrabia	1.234 m
Zizur Nagusia	2.033 m

Ibilbidean barna aisiarako 20 eremu daude. Hiri altzariak dituzte, eta, hartara, erripa gunehorietarako aukera ematen dute.

Honako hauek dira kudeaketa guneak:

- Berdeguneek, altzariak eta kale-argiak behar duten mantentze lana.
- Atarrabiako Pilategian dagoen Ingurumen Informazio eta Heziketarako Zentroan herritarrak hartzea.
- Iruñerriko ibaiei buruzko heziketarako jarduerak egitea.
- Kultura jarduerak egitea, eta ibaiei lotutako ondarea kontserbatzea (Erdi Aroko zubiak).
- Uholdeen eta haize gogorren ondorioz egin beharreko lan bereziak egitea.

### IRUÑERRIKO IBAI PARKEA HANDITZEKO PROIEKTUA IDAZTEA

2009ko maiatzean, Iruñerriko Mankomunitateak eta Ingurumen eta Landa eta Itsas Inguruneoko Ministerioak akordio bat sinatu zuten, modu koordinatuan lantzeko Iruñerriko Ibai Parkearen handitzea; 65 kilometro berri dira, egun dauden 33 km horiei gehituko zaizkienak (11 Argako Ibai Parkean eta 22 Iruñerriko Ibai Parkean). Horrek esan nahi du parkeak 17 udalerriri konektatuko dituela; egun bederatzita dira.

Handitzeko proiektuak –lanak 2010ean hasiko dira– parkea zabalduko du Nafarroako iparralderantz Frantziako Donejakue Bidetik (Orreaga) eta Baztango Donejakue Bidetik (Belatetik); halaber, Plazaolako eta Iratiko bide berdeekin bat eginen du.

### HANDITZEAREN TARTEAK

**Tarteak**

**Metroak**



## BOLUNTARIOTZA JARDUNALDIAK – PARKEA GARBITZEA ORIKAINEN ETA UHARTEN

---

Udaberrian zehar boluntariotzako bi jardunaldi egin ziren Iruñerriko Ibai Parkea garbitzeko, Orikain eta Uharteko eremuetan:

- maiatzaren 16a. 27 boluntarioren laguntza izan zen, eta ibaibidearen 1.750 metro garbitu ziren, 420 kg. hondakin bilduta.
- maiatzaren 23a. 33 boluntarioren laguntza izan zen, eta ibaibidearen 900 metro garbitu ziren, 580 kg. hondakin bilduta.